

Gizarte Segurantzako afiliazioak EAEn. Turismoaren sektoreko adar bereizgarriak

2024ko 1. hiruhilekoa

www.euskadi.eus/web01-s2tumerk/es/contenidos/informacion/tur_estatis_sstur_port/eu_def/index.shtml



Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (1. hiruhilekoa)

Aukeratutako aldiaren batezbestekoak


Afiliazio mota	Asalariados		Autónomos		Guztira	
	Afiliazioak	urtearteko ald (%)	Afiliazioak	urtearteko ald (%)	Afiliazioak	urtearteko ald (%)
A.OSTALARITZA	55.295	5,79 %	14.492	-0,67 %	69.787	4,38 %
⊕ A1.OSTATU ZERBITZUAK	6.225	9,79 %	805	2,07 %	7.030	8,85 %
⊕ A2.JAKI ETA EDARI ZERBITZUAK	49.070	5,30 %	13.687	-0,82 %	62.757	3,90 %
B.BIDAIA-AGENTZIAK ETA BIDAIA-ANTOLATZAILEAK	1.488	23,80 %	673	-12,33 %	2.161	9,72 %
⊕ B.BIDAIA-AGENTZIAK ETA BIDAIA-ANTOLATZAILEAK	1.488	23,80 %	673	-12,33 %	2.161	9,72 %
C.BESTE JARDUERA TURISTIKOAK	33.548	3,45 %	5.612	2,51 %	39.160	3,32 %
⊕ C1.BIDAIARIEN LURREKO GARRAIOA	6.072	1,60 %	2.147	0,31 %	8.219	1,26 %
⊕ C2.BIDAIARIEN BESTE MOTATAKO GARRAIOA	3.226	5,89 %	11	10,34 %	3.236	5,90 %
⊕ C3.GARRAIOAREKIN UZTARTUTAKO JARDUERAK	8.088	2,04 %	428	1,82 %	8.517	2,02 %
⊕ C4. GARRAIOAREN ALOKAIUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK	1.305	2,35 %	138	-3,73 %	1.442	1,74 %
⊕ C5.KULTURAREN INDUSTRIA	2.766	-1,13 %	1.554	3,03 %	4.320	0,33 %
⊕ C6.KIROL ETA AISIALDIAREN INDUSTRIA	12.091	6,00 %	1.335	6,55 %	13.426	6,06 %
Guztira	90.331	5,16 %	20.777	-0,26 %	111.108	4,10 %

Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (1. hiruhilekoa) Urte arteko aldakuntzaren bilakaera

2024ko lehenengo hiruhilekoan, turismo-jardueretan **111.108** afiliatu daude guztira Gizarte Segurantzzen (Euskal Autonomia Erkidegoan alta emanda dauden afiliatu guztien % **11,1**). Afiliazio kopurua % **4,1** igo da (2024ko 1. hiruhilekoan 2023eko 1. hiruhilekoaren aldean).


Turismoarekin lotutako jardueren multzoak euskal ekonomia osoak baino portaera hobea izan du, aldi honetan afiliazioek % **2,0**ko hazkuntza izan baitute.

Turismoaren sektorean soldatapekoen afiliazioek gora egin dute (% **5,2**) eta autonomoen kopuruak behera egin dute (% **-0,3**).




Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (1. hiruhilekoa) Jardueraren arabera

Jardueraren araberako banaketa



Urte arteko aldakuntza kopuru absolutuetan, jarduera-adarraren arabera. Δ 1T 2024 / 1T 2023



Turismoaren berezko adarretako afiliazioak, termino absolutuetan, 4.376 afiliatu gehiago erregistratu ditu (% 4,1) 2023eko lehenengo hiruhilekoan baino. Ostalaritzan, 2.928 afiliazio gehiago erregistratu dira (% 4,4); beste turismo-jarduera batzuetan, 1.257 afiliazio gehiago (% 3,3); eta, azkenik, bidaiaria-agentzietan, 191 afiliatu gehiago (% 9,7).


Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (1. hiruhilekoa) Ostalaritza eta bidaia-agentziak-turismo-operadoreak

Turismoarekin lotura zuzenagoa duten jarduerak (ostalaritza eta bidaia-agentziak) turismoaren sektoreko enplegu osoaren % 64,8 dira. Afiliatuak 66.860 izan ziren 2023ko lehenengo hiruhilekoan, eta 69,787 2024ko lehenengo hiruhilekoan, hau da, % 4,4 gehiago.


Jarduera	Afiliazioak	afil. aurreko urtea	urtearteko ald.	urtearteko ald (%)
A.OSTALARITZA	69.787	66.860	2.928	4,38 %
+ A1.OSTATU ZERBITZUAK	7.030	6.459	571	8,85 %
+ A2.JAKI ETA EDARI ZERBITZUAK	62.757	60.401	2.356	3,90 %
B.BIDAIA-AGENTZIAK ETA BIDAIA-ANTOLATZAILEAK	2.161	1.969	191	9,72 %
+ B.BIDAIA-AGENTZIAK ETA BIDAIA-ANTOLATZAILEAK	2.161	1.969	191	9,72 %
Guztira	71.948	68.829	3.119	4,53 %

Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (1. hiruhilekoa) Ostalaritza eta bidaia-agentziak-turismo-operadoreak, lurralde historikoaren arabera

**Portzentajezko banaketa lurralde historikoaren arabera
2024ko 1. hiruhilekoa**



**Afiliazioaren urte arteko aldakuntza, zifra absolutuetan,
lurralde historikoaren arabera. Δ 1T 2024 / 1T 2023**





Afiliazioak lurralde historikoen arabera banatuz gero, Arabak enpleguaren % 13,7 hartzen du, Bizkaiak % 50,2 eta Gipuzkoak % 36,2.

Urte arteko aldaketari dagokionez (2024ko 1. hiruhilekoa 2023eko 1. hiruhilekoarekin alderatuta), ostalaritzan eta bidaia-agentzietan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan afiliazio kopuruak gora egin du (Arabak 473; Bizkaian 2.494 eta Gipuzkoan 1.409).

Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (1. hiruhilekoa)

Afiliazioak sexuaren arabera azterketa


Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak Guztira




Enpleguaren feminizazioa turismoarekin lotura zuzenena duten adarretan (ostalaritza eta bidaia-agentziak), non afiliazioen % 58 eta % 73 emakumeak diren.

Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (1. hiruhilekoa)
Ostalaritza eta bidai agentziak. Afiliazioak sexuaren arabera

SOLDATAPEKOen afiliazioen banaketa, sexuaren arabera



AUTONOMOEN afiliazioen banaketa, sexuaren arabera



Generoen arabera afiliazio-banaketa alderantzikatu egiten da autonomoen kasuan, gizonen afiliazioak emakumeen afiliazioak baino ehuneko handiagoak baitira.

Metodologia

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak afiliazioei buruz emandako informazioaren ustiapenetik lortzen da aurkeztutako informazioa.

Turismoaren berezko jarduera ekonomikoen mugaketa nazioarteko hainbat erakundek emandako gomendioetan identifikatu da, hala nola Turismoaren Mundu Erakundeak (OMT) eta Nazio Batuen Estatistika Batzordeak. Ustiategi honetan, Turismoaren Kontu Satelitea dokumentuan jasotako gomendioak erabiltzen dira.

Turismo-sektoreko afiliatuen kopurua, aldi berean, sektoreko enpleguaren gutxiespena eta gainestimazioa da. Gutxiespena da, ez baititu aintzat hartzen neurri batean sektore turistikoaren jarduerari lagun diezaioketen beste jarduera ekonomiko batzuk, eta, bestalde, gehiegizko zenbatespena da, kontuan hartutako jarduera-adarrek ez baitute beren jarduera sektore eta eskari turistikorako soilik garatzen.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren estatistika-orrian informazio gehiago aurki dezakezue Estatistika Organo Espezifikoak Gizarte Segurantzako afiliazioei buruz egiten duen ustiapenari buruz.

https://www.euskadi.eus/web01-s2tumerk/es/contenidos/informacion/tur_estatis_sstur_port/eu_def/index.shtml

